

FUNTSEZKO ELKARTEAK:

Gure enpresa kooperatiba bat da, hau da, bertan hainbat bazkide gaude enpresaren parte garenak. Bazkideak; Morad El Hasbi, Igor Barandiaran, Unai Estensoro, Xabier Lazkano eta Xabier Zarauz gara. Bestalde, gure enpresa Lazkaoko dentista zentro batekin eta Colgate enpresa famatuarekin gaude aliatuta hasieran aukerarik egokiena proposatu zigutelako. Halaere, etorkizun batean prest gaude beste hainbat hortzetako pasta ekoizten duten enprekin kolaboratzeko.

Bazkide bakoitzaren gaitasunen bidez, gure enpresa ondo bidera dezakegu. Moradek, web gune bat sortu du, izan ere, ingeneritza informatikoa ikasi du. Igorrek administrazioa eta finantzak ditu ikasgai, beraz, gure enpresaren finantzez arduratzen da. Unaiak ingeneritza mekanikoko ikasketak edukita produktuaren funtzionamenduaz arduratzen da. Produktuaren diseinuaz arduratzen dena Xabi Zarauz da diseinua ikasi baitu. Azkenik, Xabier Lazkano gure enpresaren harremanaz eta salmentaz arduratuko da; Ingelesa, Frantsesa, Euskara eta Gaztelera oso ondo jakitez gain, oso ondo mintzatzen delako.

